

36234

LIBURUXKA ARGITSU BAT

Gaurko irakurle lanpetuak zaintsu eta labur nahi ditu liburuak. Ez baita eguneroko ogia!

Pozkarri gertatzen da, horretara, François Fontanen «ETHNISME» irakurtzea. Iaz bigarren aldiz argitaraturik, trinko, mamitsu eta zorrotz azaltzen baitu occitaniar famatuak (P.N.O.-ko Sekretariak) etniari eta abertzale-tasunari buruzko bere teoria. («Ethnis-me», F. Fontan —17,20 FF— Honera eska: Librairie Occitane —Place Mallet— 30200, Bagnols sur Cèze).

1961ean lehenengo aldiz argitara zenez gerotzik, kamustu eta xaharkitu ez baina, bere giharretsuan, sendotu eta azkartu egin dela esan daiteke. Eta, gure herri nahasian batez ere, orain dela 14 urte baino beharrago eta egokiago gertatzen dela.

—oOo—

85 orrialde horik areago laburtzerik ez dago; eta aholku bat baizik ez zait bururatzen: liburua, osoki, irakurtzea.

Fontan, dena dela, ez da batere bel-dur, ez da txalo bila ari; etni-arazoa funtsatzen baizik. Eta hastapeneko hitzetan beretan nabarmentzen da nondik nora doa: «Mundu guztiko gazte-riari, sasi-sozialismo errogabea, bere-gandik naziokeria atzerakoia bezain ausarki eraz dezan».

Herabetasunik gabe oldartzen zaie «tabu» ei eta modako ideiei: «Kondairari buruz eman ohi den azalpen tekno-ekonomikoa ez da inondik ere azalpen bat» (17).

Eta gizonaren zapalkuntzari buruz mintzo delarik: «Gehiegitan gutxietsi izan da gizonaren giza-zapalkuntza delakoa izaten dela gutxienez klase-zapalkuntza den bezanbatetan nazio-zapalkuntza; alegia, nazio batek beste nazio baten kontra obratu izan duen jazarpena eta zapalketa. Klase proletari deritzatenak baino areago baitaude nazio proletariak» (34).

—oOo—

Pluralista sinetsia, hiru eragile nagusi antzeman uste ditu Fontanek

Kondairaren hildogintzan: Ekonomia, Hizkuntza eta Setsua. Elkarri iratxekirik zaizkio hirurok, jakina; baina hirurok ere bereziak, berezkoa, eta bakar batetara ezin bilduak. Nazio-arazoa, bereziki, klase-burrukaren kapitulu edo aurpegizat hartzea zientziaren aurkatzat daduka Fontanek.

Gaurko hautakizun nagusia, horretara, ez da —Fontanen ustez—, sozialismo/kapitalismo biketakoa (ikuskerak honi «gauditua» deritza occitaniar intelektualak), inperialismo/internazionalismo baizik. Zeren eta «klase-sistemak oro, funtsean, inperialismoaren ondorio baitira» (39). Klase zapalduak, hitz batez, ez ziren, jatorrian, herri osoak baizik, herri gisa osoki eta beren osotasunean ukatuak eta zapalduak. Klase-arazoa etni-arazoaren kapitulu bat baizik ez da.

—oOo—

Nazioa ez du burgesiak sortu —ekiten dio Fontanek— eta burgesiaren suntsierak ez du beraz nazioa hilko; «etni-liferentzia giza-izatearen oinarrietatik bat baita» (28).

Gizadia etnietan zatitzen da aurren-aurrenik; eta gero, etnien barruan, klase-liferentziak eta abar sortzen (40). Banaketa nagusia etnien artekoa da.

Hori dela-eta, «Aberriaren askatasunaren helburua beti nagusitzen zaie gainerako guztiei; eta sozialismoa, demokrazia, eta abar, askatasunaren ondoren lortzen. Hain zuzen ere, azkeneko helburu zabal horik aberri-askakuntzaren segidan edo azken buruan baizik ez dira inon obratzen» (41).

—oOo—

Etnia, izaki orokorra edo «globala» izanik, hizkuntza ez da soilki, berex, zeruan edo abstrazioen mailan gertatzen. Beste eragileekin batera aurkitzen da, ekonomi eta setsu-arazoekin nahasita. Baina etniaren oinarria hizkuntza da. Zenbait mendez (Fontanek hiru proposatzen du) hizkuntza bat eskualde batetan mintzatua ez delarik, eskualde horretan etni-trukea izan dela uste du. «Herriaren ahotan hizkuntza agortu denean, nazioa suntsitu egiten da» (21).

Inperialismo/abertzale-tasun horien aurkarritza eta burruka, beraz, hizkuntzaren mailan nabarmentzen dira.

—oOo—

Haratago joanez, etnitasunak funtsatzen ditu askotan —Fontanen ustez— ideologi-mailako «okerkuntzak»: etni-burruka ideologiaz jazten da. Occitaniako «catharismoa», esate ba-

terako, itxuraz manikeismo edo zoroastrismo izana, occitaniar abertzale-tasunaren soineko baizik ez zaio Fontani iruditzen.

Etnien banaketa, hitz batez, ezin saionagoa izanik, etnien errespetutik eta benetako internazionalismotik at, soluziorik ez.

—oOo—

Iritzi sakonak eta zorrotzak elebitasunaz, «le bilinguisme, cette étape de l'assimilation»; etnia bereko norgabetu-jokabide errabiatuaz (Buonaparte, Stalin, eta hemen aipatuko ez dutana); anarkismoaz, katolikotasunaz, marxismoaz, eta beste anitz puntuz. Ezin hemen eman.

Honenbestean, beraz, aski bekik. Ene irakurleren batek liburua irakurtzen badu, aski sari badut horretan.

LARRESORO

MANEX

GOYENETXEren

LIBURU BERRIA

(I)

Azken hamar hurte hauetan ipar euskaldunak berriz, beren baitarik mintzatzen hasi dira. Edo hobeki esateko, ezen egundaino ez baitira mintzatzetik gelditu, beren ideiak berriz izkirioz jartzen hasi dira.

Urte hondar hontako «Le Monde» kazetak luze bezain zabal aipatu ditu Enbata mugimenduak ondu eta 1967an argitara zituen idazkiak: «Zer da Enbata», «Euskal Ekonomia» eta «Federalismoa?». Bereziki ohargarriak ziren azken biak, gehienik J.L. Danantek eta J. Aramendik moldatuak.

J.L. Danant-en historia ere: «Le Peuple basque dans l'histoire». Ed. Elkar, Baiona) aintz aipatu izan da.